



Aiagaurre

etxebizitza

Aldakerak:
Ahozkoa:



43° 10' 55"

2° 35' 37"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Aiaga (**Ikus Aiaga**) inguruan eraikitako bizitza biko azken txaleta, 1996. urtean. Orain arte izenik gabe zegoen txaleta da honako hau, toponimia lana egiterakoan, *Aiaga* txaletaren aurrealdean egonda, *Aiagaurre* izena hartzea proposatu eta onartu zen.

Gutziz simetrikoa da, eta bi isurkitako teilatua-ren ardatzaren arabera antolatuta dauka fatxada nagusia. Sarrerako atarteak arku beheratuak ditu, beheko solairuan daude, eta etxebizitza bakoitzaren erdialdean eta alboetan leiho bana

dute. Goiko pisuetan, berriz, etxearen erdialdea nabarmentzen da. Lehenen solairuan, etxebizitza bakoitzean eraikitako balkoi sakon eta handia dugu elementu azpimarragarri. Ganbara aldean, hormarako adreilua erabili zuten alde hori indartzeko, eta lau leihotxo ere badi-tu. Etxea luzituta dago, eta egurra da, adreilua-rekin batera, kontrasterako erabili dutena; hala, zurezko pertsianetan eta egur-imitazioz egiturak ditugu, lehenengo solairuan bereziki, etxe zaharragoen estiloan.

toponimia

Euskal Herria osoan ditugu Aia osagaia duten leku izenak, ezagunean Ataungo auzoa, eta Añibarrori esker dakigu esan-gura "aldatsa" dela. *Aiaga* baserriaren aurrean eraikitako etxea dugu izenak berak dioen bezala.